

## **KUDEAKETA, ZERGA BILKETA ETA IKUSKAPENARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

### **I. PRINTZIPIO OROKORRAK.**

#### **1. artikulua. Ordenantzaren xedea.**

Ordenantza honen xedea da Getxoko Udalari dagozkion zuzenbide publikoko zergekin eta gainerako diru-sarrerekin zerikusia duten kudeaketa-, bilketa-, zigor- eta ikuskapen-prozedurak arautzea.

#### **2. artikulua. Legezko araubidea.**

1. Zuzenbide publikoko zergen eta gainerako diru-sarreraren kudeaketa, bilketa, zigorra eta ikuskapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak arautuko ditu, Tokiko Ogasunen Foru Arauan, zerga bakoitzaren Ordenantza Fiskaletan eta Udal Ordenantza honetan aurreikusitako berezitasunekin. Han aurreikusita ez dagoen guztian Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren garapenean emandako foru-xedapenak aplikatuko dira.

2. Alkateak edozein aldaketa egin ahal izango du ordenantza fiskaletan, baldin eta bakarrik nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio badira eta baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea badakarte. Aldaketa horiek berariaz adieraziko dira, eta berehala emango zaio horren berri osoko bilkurari, berrets dezan.

#### **3. artikulua. Aplikazio-esparrua.**

1. Ordenantza hau Getxoko udalerrri osoan aplikatuko da, indarrean sartzen denetik indargabetu edo aldatu arte.

2. Zuzenbide publikoko diru-sarreraren inguruan udalerritik kanpo egin behar diren ikuskapen-jarduerak edo nahitaezko diru-bilketak Udal honek egin ahalko ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparruan. Gainerako kasuetan, ezarritako edo ezar daitezkeen lankidetz-formulen arabera egingo dira.

#### **4. artikulua. Kudeaketa, bilketa, ikuskapen eta zigor prozedura.**

1. Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarreraren kudeaketa eta bilketa Udalak berak egingo ditu zuzenean, eta Erakunde Laguntzaileetara jo dezake zerbitzua hobeto emateko.

2. Kudeaketa, bilketa, ikuskapen eta zigor prozeduraren barruan, Alkateak, edo hala badagokio, eskuordetzen duen zinegotziak, dagozkion akordioak hartuko ditu gai eta izapide hauen inguruan:

1. Baimena erakunde laguntzaile moduan.
2. Informazio-eskaera, finketan edo lokaletan sartzeko baimena, kautelazko neurriak hartzea.
3. Gauzazko ordainketa onartzea.
4. Likidazioak onartzea eta baliogabetzea.
5. Berraztertzeko errekursoak ebaztea.
6. Behar ez bezalako ordainagiriak itzultzeko eskaerak ebaztea.
7. Bermeak onartzea, gauzatzea edo haien ekarpena lekatzea.
8. Irabazi fiskalak aitortzea.
9. Hutsak eta kobra ezin daitezkeen kredituak aitortzea.
10. Geroratzeak eta zatikapenak akordatzea Ordenantza honen 34. artikulua eta hurrengoek ezartzen dituzten baldintzen arabera.
11. Eta oro har, beste organo batzuei legez ez emandako gaien dituen gainerako eginkizunak eta eskumenak izango ditu.

3. Udaleko diruzainari dagokio

1. Premiamendu-probidentzia agintzea.
2. Enbargo-eginbidea ematea.
3. Premiamendu-probidentziaren eta enbargo-eginbidearen kontrako errekursoak ebaztea.
4. Geroratzeak eta zatikapenak akordatzea Ordenantza honen 34. artikulua eta hurrengoek ezartzen dituzten baldintzen arabera.
5. Zorren konpentsazioa erabakitzea.
6. Eta oro har, udaleko organo betearazleei esleitu ezin zaien diru-bilketako prozedura zuzentzeari dagokion guztia.

### **5. artikulua. Zergadunen-herritarren arreta. Informazio pertsonala.**

Udaleko Zerga Administrazioak lortzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak erreserbatuak dira, eta ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Datu, txosten edo aurrekari horiek ezagutzen dituzten agintariek edo funtzionarioek sekretuan gorde beharko dituzte, legeetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Zerga-betebeharren titular diren pertsonak/entitateak, edo haien ordezkariak, zergei eta aplikazio-arautegiari buruzko informazioa lortu ahalko dute zergak kudeatzeko eta diru-bilketarako udal bulegoetan. Halaber, OAE Administrazio Elektronikoaren

Bulegoaren bidez zergei, haien kudeaketari eta bilketari buruzko kontsultak eta izapideak egin ahalko dira.

Zergak Biltzeko eta Kudeatzeko Unitateetan bi hizkuntza ofizialetan artatzen dira zergadunak, ahoz nahiz idatziz. Agiri guztiak elebidunak dira.

Zerga-obligaziodun pertsonak/entitateak beren kabuz edo ordezkari baten bidez jardun dezakete. Ordezkari baten bidez aritzen badira, baimen-agiri normalizatua aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, pertsona titularraren eta ordezkariaren IFZren fotokopiarekin batera.

#### **6. artikulua. Kexak eta erreklamazioak.**

Zergak Kudeatzeko eta Biltzeko bulegoek herritarrek beren zerbitzuekin zerikusia duten kexa guztiei erantzungo diete. Kexak eta erreklamazioak idatziz edo zuzenbidean onartutako beste edozein baliabideren bidez aurkeztu beharko dira. Oharrak, Kexak eta Iradokizunak (OKI) programaren bidez aurkeztu diren oharrak, kexak eta iradokizunak ere erantzungo dira.

#### **7. artikulua. IFZren derrigortasuna.**

Zerga-obligaziodun pertsona/entitate orok beren Identifikazio Fiskaleko Zenbakiarekin identifikatuta etorri behar du. Betebehar horretan barne hartzen dira ondasun-erkidegoak, jabeen erkidegoak, jaraunspen jasogabeak eta nortasun juridikoa ez duen baina zerga-obligazioduna den beste edozein erakunde, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusita badago. Halaber, atzerritarrak diren pertsonak bere bizileku-txartelaren edo pasaportearen bidez identifikatuko dira. Ez dira arau honetan sartzen egoiliarak ez diren pertsona fisikoei ezarritako trafiko- eta aparkatze-zigorrrak. Kasu horretan, beste edozein agiri ofizialaren bidez egin daiteke identifikazioa.

#### **8. artikulua. Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak zerga-prozeduran.**

Zerga Administrazioak eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak aplikatuko ditu prozedura guztietan, eta zerga-likidazioak nahiz prozedura betearazlearen ekintzak jakinaraz ditzake, posta arruntaren bidez, aurretik posta ziurtatuaren bidez jakinarazita, hartu-agiriarekin.

#### **9. artikulua. Zerga egutegia.**

Zergak biltzeko eta kudeatzeko unitateek proposatuta, Alkateak edo, bestela, eskuordetzen duen zinegotziak zerga egutegia onartuko du, nahikoa aurrerapenarekin, aldizkako mugaeguna duten zergak kobratzeko datekin. Halaber, nahierako ordainketak zatikatzeko datak ezarriko dira. Zerga egutegia Bizkaiko lurralde

historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta egokitzat jotzen diren komunikabideetan argitaratuko da. Halaber, udalaren web-orrian jarriko da.

## **10. artikulua. Berandutze-interesa.**

1. Berandutze-interesa obligaziodunei eta arau-hausleei eskatuko zaie, arrazoi hauengatik:

- a) Ordainketa falta epearen barruan.
- b) Bidegabeko itzulketa bat kobratzea.
- c) Zorren ordainketaren geroratzea edo zatikatzea, ordaintzera behartuta dagoen pertsona nahierako ordainketaren modalitatea aukeratu badu izan ezik.
- d) Autolikidazioak eta aitopenaren bidez, epez kanpo aurkeztuta, hasi diren kudeaketa-prozeduran egindako likidazioak, epea amaitu ondoren, aurretik eskatu gabe, hurrengo 6 hilabeteren buruan aurkeztu badira izan ezik.
- e) Zerga-arauegian eta indarreko aurrekontu-xedapenetan aurreikusitako gainerako kasuak.

2.- Berandutze-interesa obligaziodunei eta arau-hausleei ordainduko zaie, arrazoi hauengatik:

- a) Zerga bakoitzaren arautegiak agindutako itzultzeak.
- b) Behar ez bezalako diru-sarreraren itzultzea.
- c) Bermeen kostua itzultzea.
- d) Zerga-arauegian eta indarreko aurrekontu-xedapenetan aurreikusitako gainerako kasuak.

3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Diru-laguntzen Foru Arauan ezarritakoaren arabera, zergen zorren interesak eta diru-laguntzen interesak kalkulatzeko, berandutze-interesa diruaren legezkoa izango da, eska daitekeen aldian, % 25eko igoerarekin, Bizkaiko Lurralde Historikorako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauan beste bat ezartzen ez bada salbu. Zuzenbide publikoko zorrak direnez, diruaren legezko interesa aplikatuko da.

## **II. KUDEATZEKO PROZEDURA.**

### **11. artikulua. Zerga-likidazioak jakinaraztea.**

Zerga-likidazioak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean 107. eta 110. artetako artikuluetan eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko dira.

Bi alditan saiatuko da jakinarazten, helbide fiskalean, edo pertsona interesdunak edo haren ordezkariak aurkeztutakoan. Bi ahalegin horietan ezin izan bada jakinarazi, agertzeko jakinarazpena egingo zaio.

Zerga-obligaziodun pertsonak/entitateak ezin badio jakinarazi Zerga Administrazioari bere helbide fiskalaren aldaketa, beregainekotzat hartuko da jakinarazpenetarako aitortutako azkena, edo hark beste edozein zerga-agiritan adierazitakoa. Xede horietarako, helbide fiskaltzat hartuko da pertsona interesdunak Udalean aurkeztutako ondasun higiezinak eskualdatzeko eskrituretan emandako.

## **12. artikulua. Prestazio osagarriak.**

1.- Behar ez bezalako errenergua.

- a) Zerga-obligaziodunek, aurretik eskatu gabe aitortenaren bidez hasitako kudeaketa-prozeduran ordaindu behar duten prestazio osagarria da.
- b) Zerga-kuotaren % 5ekoa izango da.

2.- Berandutze-interesa.

- a) Zerga-obligaziodunek ordenantza honen 10. artikuluan aurreikusitako kasuetan ordaindu behar duten prestazio osagarria da.
- b) Zerga-kuota kontuan hartuz kalkulatu da.

## **13. artikulua. Likidazioak metatzea.**

Udalak ordainketa-gutun batean bil ditzake subjektu pasibo beraren zenbait likidazio edo ordainagiri.

## **14. artikulua. Gutxieneko zorra.**

Ez da ordainagiririk edo zerga-likidaziorik egingo 6 € azpikoak badira, salbuespen hauekin: Agiriak egiteagatiko tasak, gizarte-zerbitzuen tasak, Getxo Kirolak-en tasak, Getxo Antzokia eta antzekoak, zergak egiaztatzeagatiko likidazioak, errolda fiskalak eta TAO; baita arautegia aplikatuz, zerga-kuoten hainbanatzearen ondorioz sortutako zenbatekoak ere.

## **15. art. OHZren zerga-kuotaren hainbanatzea.**

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan jasotzen diren ondasun higiezinetan titular bat baino gehiago badaude, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren

subjektu pasiboa jabeen erkidegoa bada, eta erkidegoak ez badu identifikazio fiskaleko kodea, titularrak ordainagiria hainbanatzea eska dezakete, titulartasunaren ehunekoaren arabera.

Eskaeraren ondorioak:

- Eskaera OHZren errolda erreklamatzeko aldiaren aurretik edo aldian zehar, edo borondatez kobratzeko aldian zehar egiten bada, hainbanatzea eskaeraren urterako eta hurrengoetarako emango da.
- Eskaera aurreko paragrafoan ezarritako epeen ondoren egiten bada, hurrengo urterako eta hurrengoetarako emango da hainbanatzea.

## **16. artikulua. Errolda fiskalak.**

1. Zergapeko egitateak jarraitzen badu, errolda bat sortuko da, pertsona interesdunen aitortpenen arabera, Udalak ezagutzen dituen datuekin, eta ikuskapenen datuekin. Altak, bajak edo aldaketak, eragiten dituen gertaeraren hurrengo 15 egun balioduneko epean jakinaraziko dituzte zerga-obligaziodunek.

2. Erroldak alkateak onartu beharko ditu ekitaldi bakoitzean, eta 15 eguneko epean ikusgai egongo da, eragindako zergadunek azter dezaten eta hala badagokie, erreklamazioak egiteko. Hori guztia, Foru Arauek eta zuzenbide publikoko sarrerak arautzen dituzten berariazko ordenantzek xede horretarako aurreikusten dutena kontuan hartu gabe.

3. Errolda fiskalak onartzeko Dekretuan, udalaren Zerga Kudeaketak eta Diru-bilketak proposatuta, ekitaldi bakoitzerako zerga egutegia, aipatutako zergak kobratzeko epeak, tasak edo erroldako prezio publikoak barne hartuko dira; baita "nahierako ordainketa" zatikatzeko epeak ere, eta nahikoa aurrerapenarekin jakinaraziko da, egokitzen jotzen diren hedabideen bidez.

4. Borondatezko epea igarotakoan, ordainketa osoa ez bada egin, aldi betearazlea hasiko da.

## **17. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.**

1. Getxoko Udalak onura fiskalak eman ditzake bere zergetan, bere aurrekontuen kontura, dagozkion Foru Arauetan ezarritakoaren arabera.

2. Aldizkako aldiak badira, eskaera dagokion Ordenantzan ezarritako epean egin beharko da, han jasotzen diren ondorioekin.

3. Aldizkakoak ez diren zergen kasuan, eskaera zerga-aitorpena egindakoan egin beharko da, edo, gehienez, egindako likidazioaren kontra errekurtsioa egiteko epea amaitu aurretik.

4. Hobari-eskaerak bide telematikoen bidez aurkeztu beharko dira ahal dela, eta, horretarako, identifikaziorako eta sinadura elektronikorako gaitutako langileen laguntza izan ahalko da. Eskabideak deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak pertsona edo erakunde interesdunari hamar eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzentzeko eskatuko dio, eta adieraziko dio hala egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako baldintzetan emandako ebazpenaren ondoren.

#### **18. artikulua. Zerga bakoitzaren arautegiak agindutako itzultzeak.**

Zerga Administrazioak dagozkion kopuruak itzuliko ditu, zerga bakoitzaren arautegian aurreikusitakoaren arabera.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren zati proportzionalaren itzultzeen kasuan, zerga helbideratuta badago, ofizioz jardungo da. Ez badago helbideratuta, idatziz eskatu beharko da itzultzea. Horretarako, inprimaki formalizatua erabiliko da, bankuaren libretaren karatula edo horren baliokidea den ziurtagiria ere aurkeztuz, subjektu pasiboa itzultzea egin nahi den kontuaren titularra, titularkidea edo baimendua bada.

Zerga bakoitzaren arautegian finkatutako epea amaitutakoan, eta kasu guztietan, sei hilabeteko epea igarotakoan, Zerga Administrazioari egotz dakiokeen arrazoi batengatik likidazioa ez bada egin, 10. artikuluan araututako berandutze-interesa ordainduko du Administrazioak berak, zerga-obligaziodun pertsonak/entitateak eskatu behar izan gabe.

#### **19. artikulua.- Behar ez bezalako diru-sarreraren itzultzea.**

Zerga Administrazioak behar ez bezala egindako diru-sarrerak itzuliko dizkie zerga-zerga-obligaziodun pertsonari/entitateari, subjektu arau-hausleei eta ondorengoei.

Ordainketa hirugarren pertsona batek interesdunaren izenean egin badu, eta alde interesdunak hala justifikatzen badu, hirugarren pertsona horri egingo zaio itzulketa.

Behar ez bezalako sarrerak itzultzeaz gain, zerga Administrazioak ordenantza honen 10. artikuluan araututako berandutze-interesa ordainduko du, zerga-obligaziodunak eskatu behar izan gabe.

#### **20. artikulua. Idatzizko zerga-kontsultak.**

1.- Zerga-obligaziodunek, behar bezala egiaztatutako kontsultak egin ditzakete Getxoko Udaletxean, zerga bakoitzean aplikatu daitezkeen erregimenari eta ateratzen den zenbatekoari buruz.

Zerga-kontsultak aitorpenak edo autolikidazioak aurkezteko ezarritako epea amaitu aurretik egingo dira.

Lursailen balioaren igoera zergapetzen duen zergaren gaineko kontsulten kasuan, datu hauek eman beharko dira:

- Zerga-obligaziodun pertsonen/entitateen identifikazioa.
- Ondasun higiezinaren identifikazioa, katastroaren zenbaki finkoarekin.
- Haren erosketa- eta eskualdaketa-data.

2.- Idatzizko zerga-kontsulten ondorioak.

Eragin lotesleak izango dituzte, aurkeztutako kontsultek aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen ez badituzte edo okerreko datuak ematen badituzte salbu. Kasu horretan, informazioa emateko baino ez dute balioko.

## **21. artikulua. Autolikidazioaren bidez hasitako prozedura bideratzea.**

Zerga bakoitzaren arautegiak hala ezartzen badu, haren kudeaketa zerga-obligaziodun pertsonak/entitateak autolikidazio bat aurkeztuz hasiko da.

Autolikidaziotzat hartuko dira zerga-obligaziodunek jarduerak zerga administrazioarekin laguntzarekin egiten dituzten aitorpenak.

Zerga-obligaziodun baten titularrak autolikidazio batek bere interes legitimoei kalte egin diela uste badu, autolikidazio hori zuzentzea eskatu ahalko du, autolikidazioa aurkeztu eta hilabete bateko epean.

Zerga-obligaziodunek aurkeztutako autolikidazioetan emandako datuak eta egitatezko elementuak, egiazkotzat hartzen dira, eta proba baten bidez bakarrik zuzen ahalko dira, aurreko paragrafoan ezarritako prozedurari jarraituz:

Autolikidazioaren bidez hasitako prozedura, Zerga Administrazioak dagozkion egiaztatzeak egindakoan amaituko da, era honetara:

- a) Behin-behineko likidazioaren bidez, zerga bakoitzaren arautegian ezarritako epeen barruan.
- b) Ikuskapen-prozedura bat hasiz, prozedura hori hastea eskatzen duten egoerak antzematen badira.

Zergak kudeatzeko Unitateak behin-behineko beste likidazio batzuk egitea eska dezake, preskribatze-aldiaren barruan, aurkeztutako autolikidazioetan egoera hauetako bat ikusten bada:

- Akats formalak izatea eta akats aritmetikoak izatea.
- Arautegia behar ez bezala aplikatzea.
- Aitortutako datuak eta Administrazioan daudenak bat ez etortzea.



## **22. artikulua. Aitorpenaren bidez hasitako prozedura bideratzea.**

Zerga bakoitzaren arautegiak hala eskatzen badu, haren kudeaketa zerga-obligaziodun pertsonak/entitateak aitorpen bat aurkeztuz hasiko da. Horretan, zergapeko egitatea egin duela aitortu beharko du.

Aitorpen bat aurkeztuz egin, eskatu edo uko egin behar diren aukerak une horren ondoren ere zuzen daitezke, zerga bakoitzak hura aurkezteko ezarrita duen epearen barruan aurkezten bada salbu.

Zerga-obligaziodunek aurkeztutako aitorpenetan emandako datuak eta egitatezko elementuak, egiazkotzat hartzen dira, eta proba baten bidez bakarrik zuzen ahalko dira, aurreko paragrafoan ezarritako prozedurari jarraituz:

Aitorpenaren bidez hasitako prozedura, Zerga Administrazioak dagozkion egiaztatzeak egindakoan amaituko da, arrazoi hauengatik:

- a) Behin-behineko likidazioa, preskribatze-aldiaren barruan.
- b) Ikuskapen-prozedura bat hasiz, prozedura hori hastea eskatzen duten egoerak antzematen badira.

Zerga-likidazioak zerga-obligaziodun titularrari berariaz jakinaraziko zaizkio, zerga bakoitzaren arautegian ezartzen diren kasuetan, eta pertsona horri idatziz ohartarazten bazaio.

Zergak kudeatzeko Unitateak behin-behineko beste likidazio batzuk egitea eska dezake, preskribatze-aldiaren barruan, aurkeztutako aitorpenetan egoera hauetako bat ikusten bada:

- Akats formalak izatea eta akats aritmetikoak izatea.
- Arautegia behar ez bezala aplikatzea.
- Aitortutako datuak eta Administrazioan daudenak bat ez etortzea.

## **23. artikulua. Zerga-zorra ofizioz zenbatzeko prozedura.**

Zerga Administrazioak zerga bakoitzerako arauz ezarritako aurkezteko epean egin ez dituen autolikidazioak edo aitorpenak aurkezteko agintzen badio zerga obligaziodunari, eskaera egin eta hilabete bat igarotakoan, ofiziozko behin-behineko likidazioa egiteko prozedura hasiko da.

Behin-behineko likidazioa egin aurretik, likidazio-proposamena jakinaraziko zaio zerga-obligaziodun pertsonari/entitateari.

Zergak kudeatzeko Unitateak behin-behineko beste likidazio batzuk egitea eska dezake, preskribatze-aldiaren barruan, egindako likidazioetan egoera hauetako bat ikusten bada:

- Akats formalak izatea eta akats aritmetikoak izatea.
- Arautegia behar ez bezala aplikatzea.
- Aitortutako datuak eta Administrazioan daudenak bat ez etortzea.

#### **24. artikulua. Balioak egiaztatzea.**

Zerga Administrazioak balioak egiazta ditzake, aurreikusitako baliabideen eta zergei buruzko foru arau orokorrean eta hura garatzen duen arautegian ezarritako prozeduraren arabera.

#### **25. artikulua.- Egiaztatze mugatua.**

Zerga Administrazioak zerga-betebeharraren gertaerak, ekintzak, elementuak, jarduerak, ustiapenak eta gainerako egoerak egiazta ditzake, zergei buruzko foru arau orokorrean eta hura garatzen duen arautegian ezarritakoaren arabera.

### **III. ZERGA-BILKETARAKO PROZEDURA.**

#### **A. ZORRAREN ORDAINKETA**

#### **26. artikulua. Ordainketa egiteko legitimizazioa.**

Ordainketa edozein pertsona obligaturen edo zorra iraungitzeko osoko ondorioak dituzten hirugarren pertsonen bidez egin daiteke. Hala ere, horrek ez die hirugarren pertsonen Udalaren aurrean inolako eskubiderik aitortzeko ahalmena ematen.

#### **27. artikulua. Ordainketa borondatezko epean egiteko moduak, lekua eta epeak.**

1. Likidazioak eta autolikidazioak ordaindu beharko dira, nahita nahiez, ondorio horretarako entregatutako Ordainketa Kartaren bidez.

2. Honako leku hauetan ordaindu ahal izango da:

- a) Udaleko zerga-bilketan laguntzen duten kreditu-erakundeak, aurrez aurre edo banka elektronikoaren bidez. Erakunde laguntzaileak ordainketa-gutunean adieraziko dira.
- b) Internet bidez, Getxoko Udalaren Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bidez edo Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bidez.
- c) Ordainketa-gutunean ezarritako beste ordainketa-modu batzuk.

3. Entitate Kolaboratzaileek ez dute inolaz ere udal Zerga-bilketako organo izaerarik edukiko. Horiek baliozkotuko dute dagokion dokumentuan egindako ordainketa, eta horrek zerga-ordaintzaile pertsonarentzat kitatze ondorioak eragingo ditu.

4. Ordainagirian bertan ordainketa-epe luzeagoak adierazi izan ezik, zorrak borondatezko aldian ordaintzeko epea izango da, oro har, Zergazko Foru Arau Orokorrean, zerga izaerako zorretarako adierazitakoa. Aldian aldiko epemuga eta jakinarazpen kolektiboko ordainagiriaren kasuan, ordainketa epea, gutxienez, hilabetekoa izango da eta Ordenantza Orokor honen 9. artikulua araberaz zehaztuko da. Autolikidazioak ordaintzeko epea hamar egunekoa da, dagokion zerga araupetzen duen Ordenantzan kontrakoa xedatu izan ezik.

5. Trafiko eta TAO isunak ordainduko dira horri buruzko araudi sektorialean aurreikusitako epeetan.

6. Zor bat ordaintzen duenak egindako ordainketaren frogagiria jasotzeko eskubidea izango du. Ordainketa hirugarren pertsona baten kontura egiten bada, ordainketa-frogagirian zorraren pertsona titularra agertuko da bakarrik, eta azken hura aske geratuko da, ordainketa egin duena edonor izanda ere.

## **28. artikulua. Kobratze dokumentua.**

Ordainketa egiteko, dagokion kobratze dokumentua aurkeztu behar da. Bertan, subjektu pasiboaren nahitaezko identifikazio datuak eta zergaren likidazioa adieraziko dira.

Entitate kolaboratzaileak baliozkotutako dokumentua egindako ordainketaren frogagiria izango da.

Kobratze dokumentua galtzen edo jasotzen ez bada, hiritarreganako arretarako bulegoek haren kopiak igorriko dituzte.

Ez bada kobratze dokumentua jasotzen, likidazioa baldintza legalen arabera jakinarazi bada edo aldian aldiko errola bat osatzen badu, hori ez da arrazoitzat hartuko, ordainketa ezarritako epean ez egitea justifikatzeko.

## **29. artikulua. Banku helbideratzea.**

1. Aldizkako epemuga duten eta erregularrak diren ordainagiriak borondatezko aldian banku-kontuan helbideratuta ordaindu ahal izango dira.

2. Banku-kontuan helbideratzeko eskaera erregistro bidez aurkeztu beharko da egoitza elektronikoan, Getxoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulego batean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015

Legearen 16. artikuluan ezarritako gainerako erregistro-moduren baten bidez. Eskaera horretarako ezarritako eredu normalizatuaren bidez egin beharko da, eta zehatz-mehatz adierazi beharko da zer ordainagiriri dagokion. Ezin izango da zabaldu beste zerga batzuetara edo zerga beraren baitako beste zerga-objektu batzuetara. Halaber, ordainagiria ordaintzerakoan, hurrengo ekitaldirako banketxean zuzenean helbideratu ahal izango da.

Eskaerek balio mugagabea izango dute, harik eta zergadunak deuseztatzeko edo aldatzeko eskaera egin arte. Hala ere, zerga-bilketak ofizioz baliogabetu ahal izango ditu helbideratzeak, baldin eta igorpen-hartzailearen aginduz itzuli badira, kontua ezeztatzearen ondorioz, zordunak zuzeneko zordunketetarako kontua blokeatzearen ondorioz edo kontu-zenbaki okerra jartzearen ondorioz, bai eta saldo-eskasiagatik edo ez-korronteengatik itzultitakoak ere.

Banku-helbideratzea egin ahal izateko baldintzak, betekizunak eta dokumentazioa Diruzaintzako Instrukzioan ezarriko dira.

3. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten banku-kontuko ordainagiriak helbideratzeko eskaera aurkeztu ahal izango da Diruzaintza Arloak ekitaldi bakoitzerako ezartzen duen epean. Banku-kontuan helbideratzea eskatzeko epearen amaiera-data ekitaldiko egutegi fiskalean finkatuko da. Eskaera egutegi fiskalean ezarritako epea baino geroago egiten bada, eskaera horrek hurrengo ekitaldian izango du eragina.

4. Ekitaldiko egutegi fiskalean adieraziko da aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten helbideratutako ordainagiriak kontuan noiz kargatuko diren.

5. Helbideratutako ordainagiria itzultzen bada, Udal Administrazioari lepora ezin dakizkiokeen kausak direla eta, ordainketa egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, betearazteko epea hasiko da. Ordainagiria itzultzeko arrazoia Administrazioari leporatzekoa bada, ez dira ez errekarguak ez berandutze interesik exijituko eta horiek, dagoeneko, ordaindu badira, itzuli egingo dira.

### **30. artikulua. Ordainketa partziala.**

Ordainketa ez bada iristen zor den zerga osoa ordaintzeko, iraungiko da bakarrik ordaindutako zergaren zatia, beraz, betearazteko epeari hasiera emango zaio, dagozkion errekarguekin eta interesekin, zor den zatiarengatik.

### **31. artikulua. Bikoiztutako edo gehiegizko diru-sarrerak itzultzea.**

Bikoiztutako edo gehiegizko diru-sarrerak itzultzeko prozedura ofizioz edo pertsona interesatuak eskatuta hasiko da. Azken horrek idatziz eskatu beharko du, hura

identifikatzeko datu nahikoak eta dirua itzultzeko kontu zenbakia adieraziz. Era berean, kontuaren titularra dela egiaztatzeko libretaren edo banku ziurtagiriaren karatularen fotokopia ere erantsi beharko da. Itzulketa ofizioz hasten bada eta udaleko zerga-bilketan ez bada modu frogagarrian agertzen pertsona titular horren izenean dagoen konturik adierazten, gutun bat bidaliko zaio kontu hori eskatzeko.

Zerga-bilketarako bulegoak diru-sarrera hauek itzultzeko espedientea prestatuko du eta hura Alkatetza Dekretuaren bidez ebatziko da. Bikoiztutako diru-sarrerak anitzak badira, horiek itzultzea baterako ebazpen batean ontzat eman daiteke.

Diru-sarrerak itzultzeko dira banku transferentziaren bidez.

Bikoiztutako diru-sarrerak itzultzearekin batera likidatuko dira zerga-bilketan bikoiztasuna eman zen egunetik eragindako berandutze-interesak.

### **32. artikulua. Zorrak pilatzea eta ordainketak egozte.**

Dagozkion premiamendu erabakiak jakinarazi ondoren, zerga-ordaintzaile bakoitzaren zorrak espediente bakar batean bilduko dira.

Salbuespen gisa, zordunak, aurretiko baimena lortuz gero, espediente bakar batean metatutako zorraren zati bat ordaintzeko aukera izango du banku-transferentzia bidez, betiere diruzainaren Diruzaintzako Instrukzioak ezarritako baldintzak eta betebeharrak betez.

Transferentzia egiteko adierazitako kontuan dagokion zenbatekoa sartzen den egunean, ordainketa egintzat hartuko da, eta, une horretatik aurrera, Udalarik ordaintzera behartutako pertsona liberatu egingo da sartutako zenbatekoagatik. Gainerako zorrari dagokionez, premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du.

Zerga Administrazioaren aurretiko baimenik gabe egindako transferentziek ez dute ondorio libratzailerik izango zergapekoentzat.

Ordainketak egotziko dira ZFAOn, ondorio horretarako, aurreikusitako arauari jarraiki.

## **B. ZORRAK ATZERATZEA ETA ZATITZEA**

### **33. artikulua. Zorrak geroratzeko eta zatikatzeko baimena.**

1.- Getxoko Udalak zergak eta eskubide publikoko beste diru-sarrerak atzeratzeko edo zatitzeko ahalmena du, obligatuak eskatu ondoren, bai ordainketarako borondatezko aldiaren barruan eta bai zorra betearazteko bidean dagoenean. Ez da, inolaz ere, aipatutako eskaera izapidetuko, bertan, eskatutako zorraz gain, ez bada zordun pertsonak dituen eta atzeratu eta eten egin ez diren zor guztiak aurkitzen ez badira. Ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera egoitza elektronikoan aurkeztu

beharko da, Getxoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulegoetan edo, bestela, erregistratzeko gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikularekin bat etorriz, horretarako ezarritako eredu normalizatuaren bidez.

2.- Eskatutako zorra atzeratzeko edo zatitzeko, zorra bankuan helbideratzea nahitaezko baldintza izango da. Helbideratze-kontua berbera izango da geroratuta edo/eta zatikatuta dauden zor guztietarako.

3.- Geroratutako edo zatikatutako diru-kopurua sartzen ez bada, ordaintzeke dagoen zor guztia eskatu ahal izango da betearazpen-bidean. Muga-eguna iristen geroratutako kuota edo zatikatzeetako bat ordaintzen ez bada, zor guztia betearazpen-bidean ordainaraziko da, eta ordaintzeke dauden zatikatze guztiak mugaeguneratutzat joko dira.

4. Oro har, ezingo dira hauek ez atzeratu ezta zatitu ere:

- 150 euroetatik beherako pilatutako edo guztira zenbateko horretan diren zorrak.
- Zehapen prozeduretatik eratorritako borondatezko aldian dauden zorrak (isunak eta gainerako zigorrak) euren zenbatekoa edozein izanda ere.
- Aldian aldiko epemugako ordainagiriei eta jakinarazpen kolektiboari dagozkien zorrak, horietarako kartarako ordainketa modalitatea aurreikusi bada. Aurrekoa gorabehera, zergapekoari leporatu ezin dakizkiokeen inguruabarrak direla-eta, administrazioak ezin izan baditu zergari dagozkion likidazioak ezarritako aldizkakotasunarekin egin, preskripzio-eparearen barruan preskribatu gabeko zor pilatuaren zenbateko osoa eskatzen zaionean, zergapekoak ~~salbuespen gisa~~ zor hori geroratzeko edo zatikatzeke eskatu ahal izango du, aldizkakoak ez diren epemuga duten zorretarako xedatutako epeak kontuan hartuta. Ondorengo likidazioak zatikatzeke, nahierako ordainketaren bidez egin beharko du.

5. – Borondatezko edo betearazteko ordainketaren epean, zorraren zatiketak horrela emango dira:

- a. 2.000 € baino gutxiagoko zorrak gehienez sei hilabetez zatikatu daitezke. Ebazpena Diruzaintza Unitateko Ekonomia eta Ogasuneko goi-mailako teknikariak emango du.
- b. 2.000 € eta 6.000 € arteko zorrak gehienez hamabi hilabetez zatikatu daitezke. Ebazpena Diruzainari dagokio.
- c. 6.000 € baino gehiagoko zorrak gehienez ere 36 hilabetez eta gutxienez 200,00 €-ko kuotan zatikatu ahal izango dira. Ebazpena Diruzaintzako Arloko zinegotziari dagokio.

6. - Borondatezko edo betearazteko ordainketaren epean, zorraren geroratzeak horrela emango dira:

- a. 2.000 € baino gutxiagoko zorrak gehienez sei hilabetez geroratu daitezke. Ebazpena Diruzaintza Unitateko Ekonomia eta Ogasuneko goi-mailako teknikariak emango du.
- b. 2.000 € eta 6.000 € arteko zorrak gehienez hamabi hilabetez geroratu daitezke. Ebazpena Diruzainari dagokio.
- c. 6.000 € baino gehiagoko eta 100.000 € baino gutxiagoko zorrak gehienez 18 hilabetez geroratu daitezke. 100.000 €-ko edo 100.000 € baino gehiagoko zorrak gehienez 36 hilabetez geroratu daitezke. Ebazpena Diruzaintzako Arloko zinegotziari dagokio.

7.- Salbuespen gisa, geroratzea edo zatikatzea onartu ahal izango da artikuluan honen 4. atalean araututako kasuetako batean edo 5. eta 6. ataletan araututako epeez bestelakoetan, baldin eta zergapekoaren egoera ekonomikoak, Diruzaintza Arloko zinegotziaren ebazpen bidez, hala adierazten badu. Aukera hori berariaz eskatu beharko du pertsona zergapekoak, eta finantza-egoera egiaztatzen duen dokumentazioa eman beharko du.

### **34. artikulua. Zorra zatikatzearen edo geroratzearen ondorioz sortutako interesak kalkulatzeko**

1.- Atzeratzen edo zatitzen diren ordainketen zenbatekoek dagokien berandutze-interesak eragingo dituzte, horiek irauten duten aldiez.

2- Berandutze-interesa kalkulatzeko zorraren printzipala hartuko da oinarri. Zorra premiamendu bidean atzeratzen edo zatitzen bada, berandutze-interesak kalkulatzeko dagoen zor guztia osoa hartuko da oinarri, errekaratuak, kostuak eta emakidaren unean sortutako interesak barne.

3- Exijituko den interes tasa berandutze-tasa izango da. Hura ordenantza honen 10. artikuluan araupetuta dago.

4- Atzerapenei dagokienez, bertatik eratorritako interesari dagokien zenbatekoa epemugan exijituko da, zorraren zenbatekoarekin batera; zatitzei dagokienez, zati bakoitzarengatik sortutako interesak dagokion epean exijituko dira zorrarekin batera.

5- Atzerapen edo zatitze eskaera bat borondatezko aldiari eskatzen bada, ez zaio betearazteko aldiari hasiera emango, baina berandutze-interesak sortuko dira. Horrela, eskatutako atzerapena edo zatitzea ezeztatzen bada, berandutze-interesak likidatuko dira, diru-sarrera borondatezko aldiari egiteko epea amaitu zenetik ezeztatze ebazpena edo ordainketa eraginkorra egiten den arte igarotako aldiak.

### **35. artikulua. Zorra zatikatze edo geroratzeko eskaeraren baldintzak**

1.- Zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatze eskaera egoitza elektronikoan, Getxoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulego batean edo Administrazio Publikoan

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako gainerako erregistro-moduren baten bidez egin beharko da.

2.- Eskaera horri buruz dauden normalizatutako formularioetan egin beharko da.

3.- Eskaerak honako hau edukiko du nahita nahiez:

- Pertsona eskatzailearen izen-abizenak, sozietatearen izena edo izendapena, identifikazio fiskaleko zenbakia (edo NAN) eta pertsona eskatzailearen helbidea, eta, hala badagokio, ordezkatzen duenaren helbidea.
- Atzeratzea edo zatitzea eskatu den zorraren identifikazioa.
- Eskatutako epea.
- Atzeratzearen edo zatitzearen zioa.
- Ordainketak bankuak helbideratzeko kontu zenbakia. Ordainketa obligatua titularrak ez den kontu batean helbideratu ahal izango da, baldin eta haren titularrak aipatutako helbideratzea espresuki baimentzen badu.
- Tokia, data eta sinadura.
- Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatze eskatutako agiriak.

Eskaerarekin batera finantza egoera eta eskatzen den bermea egiaztatzen dituzten dokumentuak ere entregatu beharko dira, nahitaezko baldintza izanez gero. Eskatzaileari dokumentazioak izan ditzakeen akatsak ohartaraziko zaizkio, eta horrek hamar eguneko epean zuzendu beharko ditu, eta ez badu horrela egiten, eskaera ez aurkeztutzat emango da.

4.-Atzerapen edo zatitze eskaera izapidetzen ari den bitartean, eskatzaileak zorra ordainduko balu, bere eskaerari uko egin diola ulertuko da.

### **36. artikulua. Zorra zatikatzea edo geroratzea ebaztea**

1.- Geroratzeko eta zatikatze eskakerak hilabeteko epean ebatzi beharko dira, aurkeztu ziren egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman ez bada, eskaera ukatutzat joko da.

Interesdunari dokumentazio edo informazio gehigarria aurkezteko eskatzen bazaio, ebazpen-epea luzatu egingo da eta izapidea egiteko behar izandako denbora iraungo du.

Ebazpena ezezkoa bada eta ordainketa geroratzeko edo zatikatze eskakera borondatez ordaintzeko epean egin bada, zorra hilabeteko epean ordaindu beharko da, jakinarazpena egin den egunetik zenbatzen hasita.

Ebazpena ezezkoa bada eta geroratzea edo zatikatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 60.3 artikuluan aipatzen den epean eskatu bada, bost eguneko epea emango da zorra ordaintzeko, errekaru exekutiboa barne. Epe horretan ezin izango da premiamendu-errekargua eskatu.



2.- Honako kasu hauetan ez da zorra geroratzeko edo zatikatze eskaerarik onartuko:

a) Geroratzeko edo zatikatze-eskaerako zorra aurretik geroratuta edo zatikatuta egon denean eta eraginkortasuna galdu duenean, bitan baino gehiagotan geroratzeko edo zatikatze-akordioan ezarritako baldintzaren bat ez betetzeagatik. Atal honetatik salbuetsiko dira pertsonak/entitateak zergapeko zordunak, baldin eta bermea kreditu-erakundeetako edo elkar bermatzeko sozietateetako abal solidarioaren bidez ematen badute, edo kauzio-aseguruko ziurtagiriaren bidez.

b) Geroratuta, zatikatuta, etenda edo eskatutako geroratzeko edo zatikatze-egoeran ez dauden betearazpen-aldiko beste zor batzuk daudenean.

c) Zorrak geroratzeko edo zatikatze eskaerak kontrako kreditutzat hartzen direnean, konkurtso-legeriaren arabera.

d) Aurretik ukatu diren beste eskaera batzuk errepikatuz, ez bazaie funtsezko aldaketarik egin alde aurretik ukatutako eskaeren aldean, eta, batez ere, errepikatze horren helburua zerga-bilketaren kudeaketa luzatu, zaildu edo eragozte bada.

e) Ordenantza honen 36. artikuluko 2. eta 3. ataletan eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak, interesdunari hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak emateko eskatu ondoren. Ez onartzeak geroratzeko edo zatikatze-eskaera ez aurkeztutzat jotzea ekarriko du ondorio guztietarako.

3.- Atzerapen eta zatitzeen inguruko ebazpenen aurka birjarpenezko errekurtsioa jarri ahal izango da, Alkatetzaren aurrean, hilabeteko epean, dagokion jakinarazpena jasotzen denetik aurrera. Errekurtso hau ezeztatzen duen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke.

### **37. artikulua. Bermea.**

1.- Atzerapen edo zatitze eskaerarekin batera, izaera orokorrarekin, printzipala eta berandutze-interesak barne hartzen dituen bermea entregatu beharko da, gehi bien arteko batuketaren %25.

2.- Aurreko atalean aipatutakoa alde batera utzita, horrelakoetan ez da bermerik eskatuko:

- 10.000,00 euro edo hortik beherako zorrak, eskatutako epea edozein izanda ere.

- 60.000,00 euro edo hortik beherako epeak, eta eskatutako gehienezko 12 hilabeteetako epea.
- 100.000,00 euro edo hortik beherako zorrak eta eskatutako gehienezko 6 hilabeteko epea.

3.- Berme gisa onartuko da finantza entitateen, aseguru entitateen edo elkarrekiko bermeko elkarteen abal solidarioa. Eratutako bermea baliozkoa izan beharko da, Udalak hura kitatzea baimentzen ez duen bitartean.

4.- Bermea emakida akordioa jakinarazi eta ondorengo hogeita hamar eguneko epean entregatu beharko da. Epe hori igarotzen bada, bermea gauzatu gabe, eskatutako atzerapen edo zatitze emakidaren akordioa efekturik gabe geratuko da, eta zorra premiamendu bidetik exijituko da, ordainketarako borondatezko aldia dagoeneko igaro bada.

5.- Obligatuak bere eskaeran alegatuko balu ezin duela exijitutako bermea eman, ohiz kanpoko izaerarekin, bermearen dispentsa ontzat eman ahal izango da. Horrelakoetan, hura emakida dekretuan espresuki adierazi beharko da.

Eskaerarekin batera honakoa entregatu beharko da:

Pertsona fisikoa bada:

- Ondasun nahikoak ez dituela adierazten duen deklarazioa.
- Entitate ordaintzaileak behar bezala egiaztatutako nomina edo diru-sarreraren frogagiria.

Pertsona juridikoa bada:

- Ondasun nahikoak ez dituela adierazten duen deklarazioa.
- azken 2 ekitaldietako Irabazien Galeren Balantzea eta Kontua.
- Bi finantza entitateen ziurtagiria. Bertan, egiaztatu behar da zordunak ezin duela bermea eskaini.

### **38. artikulua. Zorra zatikatzeko edo geroratzeko erabakia ez betetzea.**

1.- Atzeratutako edo zatitutako zenbatekoak banku helbideratzearen bidez ordainduko dira.

2.- Zatitutako edo atzeratutako ordainketaren onuradunak Udaleko Zerga-bilketari jakinarazi beharko dizkio kontu korrontean izandako aldaketak edo zorraren ordainketari eragiten dion edozein intzidentzia, dagokion epea amaitu baino hamar egun lehenago gutxienez.

3.- Ez bada emandako atzerapen erabakia betetzen, honela jardungo da:

- Zorra borondatezko aldian aurkitzen bazen, betearazteko prozedurari ekin egingo zaio, zorraren printzipalari dagokion errenergua eginez, eta borondatezko aldia amaitu zenetik sortutako berandutze-interesak ordainduz. Ez da interesik sortuko baldin eta zorra premiamendu-probidentzia jakinarazi zenetik hilabeteko epea amaitu baino lehen ordaintzen bada. Ez bada

ordainketa ZFAOean ezarritako aldiaren egiten, bermea exekutatu da, hura eratu izanez gero.

- Atzerapena betearazteko aldiaren eskatu bazen, bermea exekutatu da, edo ez bada eratu nahitaezko baldintza ez zelako, premiamendu prozedurari ekin egingo zaio.

4.- Ez bada emandako zatitze erabakia betetzen, honela jardungo da

- Zorra borondatezko aldiaren bazegoen, epemugan ordaindu gabeko zatirik badago, mugaeguneratuzat joko dira ordaintzeke dauden zati guztiak, eta ordaindu gabeko zorraren betearazpen-prozedura hasiko da. Zorraren printzipalari dagokion errekargua egingo zaio, eta borondatez ordaintzeko epea amaitu zenetik sortutako berandutze-interesak ere ordaindu beharko ditu. Ez da interesik sortuko baldin eta zorra premiamendu-probidentzia jakinarazi zenetik hilabeteko epea amaitu baino lehen ordaintzen bada.
- Zorra betearazpen-epean bazegoen, epemugan ordaindu gabeko zatirik badago, mugaeguneratuzat joko dira ordaintzeke dauden zati guztiak, eta bermea exekutatu da, edo, baldintza ez izateagatik eratu ez bazen, premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du ordaintzeke dagoen zatikatutako zor osoa ordainarazteko.

## **C. NAHIERAKO ORDAINKETA**

### **39. artikulua. Nahierako ordainketa egiteko baldintzak**

1.- Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zergak direnez, "Nahierako ordainketa" izeneko zatikatze-modalitatea xedatu da. Horren arabera, zorrak ekitaldiko egutegi fiskalean ezarritako epeetan ordaintzea aurreikusten da, berandutze-interesik sortu gabe eta bermeak ematea eskatu gabe.

Nahierako ordainketaren bidez jarduteko eskaerak dagokion eredu normalizatuan aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta eskatutako dokumentazioarekin batera, egoitza elektronikoa, Getxoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulego batean edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako gainerako erregistro-moduren baten bidez.

2.- Zergapeko bakoitzak nahierako ordainketa bakarria erabili ahal izango du aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zerga guztietarako edo horien zati baterako, eta ekitaldi bakoitzean aldizkakotasuna aldatu ahal izango du, betiere administrazioak ezarritako epeen barruan.

3.- Ordainketa zatikatua egin ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Betearazpen-bidean ordaintzeko zorrik ez izatea. Era berean, ordaindu gabeko zatiak izanez gero, hurrengo urteetarako eten egingo da nahierako ordainketa zatikatze-modalitatea erabiltzeko baimena.
- Zerga-zorren ordainketa helbideratzea.

4.- Zerga-ordaintzaileak hautatutako modalitatearen zatiren bat ordaintzen ez badu, betearazteko aldiari ekin egingo zaio, ordaintzeko dagoen zor guztirako, bai ordaindu ez den zatiketari eta bai hurrengoei dagokienez.

5.- Zergapekoak nahi izanez gero, oraindik mugaeguneratu gabe dauden zatien ordainketa aurreratu ahal izango da, betiere Diruzaintzako Instrukzio bidez araututako baldintzei eta betebeharrei kasu eginez.

## D. KONPENTSAZIOA

### 40. Artikulua. Zorrak konpentsatzea

#### 1. Aldeak eskatutako konpentsazioak:

Tributua ordaindu behar duenak eskatu ahal izango du zorrak, hala borondatezko nola premiamenduzko aldikoa, konpentsatzea, haren alde aintzat hartutako kredituak erabiliz.

Kompentsazioa Diruzaintzaren ebazpenaren bitartez erabakiko da.

#### 2. Ofiziozko konpentsazioak:

1. Zorra borondatezko aldiari dagoenean, ofizioz konpentsatu ahal izango da Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean (ZFAO) aurreikusitako kasuetan. Kompentsazioa Alkatetza Dekretu bidez egingo da, Zergen Kudeaketarako Sailak proposatuta.

2. Zorra premiamenduzko aldiari dagoenean, zorrak konpentsatuko dira zordunaren alde aintzat hartutako beste kreditu batzuekin, konpentsazio-proposamena baino lehen hirugarren pertsona bati endosatuta ez badaude.

Gizarte Larrialdiko Laguntzak itzultzetik eratorritako zorrak izanik, horren inguruan erkidegoan dagoen araudi espezifiko aplikatuta, nahiz udal-eremuan prestazio ekonomikoen bidegabeko kobrantza itzultzeko justifikazioei eta prozesuari buruzko barne araudia aplikatuta, konpentsatu ahal izango dira kontzeptu beragatik egin beharreko ordainketen bidez.

Bi kasuetan, konpentsazioa Diruzaintzaren ebazpenaren bidez egingo da.

3. Ez dira konpentsatuko borondatezko nahiz premiamenduzko aldiari dauden zorrak atzeratuta edo zatiituta badaude.

## E. HUTS EGINDAKOAK ETA KOBRATU EZINEKO KREDITUAK

### **41. Artikulua. Huts egindako zordunak eta kobratu ezineko kredituak**

1. Huts egindakoak izango dira ordaintzera behartuak dauden pertsonak/entitateak baina zorra ordaintzeko nahikoa ondare enbargarria ez dutenak, edo derrigorrez betearazi beharrekoetan aurreikusitako jarduerak emaitza negatiboa eman dutenak.

2. Huts egindakoaren aitortpena Udal Diruzainak proposatzen du, Dirubilketak egindako datu eta jarduerak kontuan hartuta. Bestelako erantzulerik izanez gero, haien kontrako prozedura jarraituko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren arabera.

3. Kobratu ezineko kredituak dira dirubilketaren kudeaketa-prozeduran kobratu ezin izan direnak, ordaintzera pertsona behartuek huts egiteagatik.

Ordaintzera pertsona behartuak behin huts egindako aitortuta, zorrak behin-behineko kitatuko dira, baldin eta indargabetzeko epean berriro errehabilitatzen ez badira. Zorra behin betiko indargabetuta geratuko da, epe horren barruan errehabilitatua izan ez bada.

4. Dirubilketak zordunak kaudimena izatea jakingo balu, kreditua errehabilitatzeko proposatuko dio Diruzainari.

5. Pertsona zorduna huts egindakotzat aitortuta, beranduago iraungitzen diren haren kredituei baja emango zaie aitorten hori dela-eta, bestelako pertsona behartu edo erantzulerik izan ezean.

6. Kredituak kobra ezinezkotzat aitortzeko, Udaleko Dirubilketak behar bezala dokumentatuko ditu espedienteak, eta proposamena, Diruzainaren txostenarekin eta Udal Kontu Hartzaitzaren fiskalizaziora eramanda, Alkatetza Dekretuaren bidez onartuko da edo Gobernu Batzordearen erabakiaren bidez, eskumen hori ordezkatua izan bada.

7. Bizkaiko Foru Aldundira bidalitako zorrak izanik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Getxoko Udalaren arteko hitzarmena oinarri hartuta horren zuzenbide publikoko sarrerak nahitaezko prozeduraren bitartez biltzeko, Getxoko Udalak huts egindakotzat eta kreditu kobraezintzat jotzeko erabakia Bizkaiko Foru Aldundiak proposatuta hartuko du, hitzarmenean, HIRUGARREN klausulako 1 d) eta 2 f) idatz-zatietan, aurreikusitakoaren arabera.

### **42. Artikulua. Kobra ezinezko kreditua aitortzeko prozedura**

1. Prozeduraren legezkotasunari eta administrazioaren eraginkortasunari eutsi nahian, kredituak kobra ezinezkotzat aitortzeko proposamena egin aurretik egiaztatu beharko diren baldintzak ezartzen dira. Justifikatzeko dokumentazioa ezberdina izango da zorraren zenbatekoen eta ezaugarrien arabera.

2. Espedientean jasota utzi beharko da, kasu guztietan, Udalaren datu-basean agertzen den helbide fiskalean jakinarazteko saiakera egin dela nahiz Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean. Jakinarazpenaren emaitza negatiboa bada, iragarkiaren bidez argitaratuko da Lurralde Historikoko Buletin Ofizialean.

3. Trafiko eta aparkalekuen zigorretatik eratorritako zorren kasuan, espediente bakoitzean honako hauek ere egiaztatu beharko dira:

1. 300 eurotik behera pilatutako zorren gaineko espedienteak:
  - a. Funtsak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, Bizkaiko LHko banku-erakunde ezberdinetan, emaitza negatiboarekin.
2. 300 eurotik 3.000 eurora bitarte pilatutako zorren gaineko espedienteak:
  - a. Funtsak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, Bizkaiko LHko banku-erakunde ezberdinetan, emaitza negatiboarekin.
  - b. Foru Ogasunak egindako itzultzeak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, emaitza negatiboarekin.
  - c. Soldatak, ordainsariak eta pentsioak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, emaitza negatiboarekin (pertsona fisikoen kasuan).
3. 3.000 eurotik gora pilatutako zorren gaineko espedienteak:
  - a. Funtsak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, Bizkaiko LHko banku-erakunde ezberdinetan, emaitza negatiboarekin.
  - b. Foru Ogasunak egindako itzultzeak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, emaitza negatiboarekin.
  - c. Soldatak, ordainsariak eta pentsioak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, emaitza negatiboarekin (pertsona fisikoen kasuan).
  - d. Jabetza Erregistroetan edo edozein erregistro publikotan zordunaren izenean inskribatutako ondasunak ez izatea egiaztatzea.

4. Trafiko eta aparkalekuen zigorretatik eratorritako zorren kasuan, espediente bakoitzean, horiez gain, honako hauek ere egiaztatu beharko dira:

1. 300 eurotik behera pilatutako zorren gaineko espedienteak:
  - a. Funtsak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, Bizkaiko LHko banku-erakunde ezberdinetan, emaitza negatiboarekin.
2. 300 eurotik 3.000 eurora bitarte pilatutako zorren gaineko espedienteak:
  - a. Funtsak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, Bizkaiko LHko banku-erakunde ezberdinetan, emaitza negatiboarekin.
  - b. Foru Ogasunak egindako itzultzeak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, emaitza negatiboarekin.
3. 3.000 eurotik gora pilatutako zorren gaineko espedienteak:
  - a. Funtsak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, Bizkaiko LHko banku-erakunde ezberdinetan, emaitza negatiboarekin.
  - b. Foru Ogasunak egindako itzultzeak enbargatzeko saiakera egiaztatzea, emaitza negatiboarekin.

- c. Jabetza Erregistroetan edo edozein erregistro publikotan pertsona zordunaren izenean inskribatutako ondasunak ez izatea egiaztatzea.

5. Eraitza negatiboak dituzten jardueren saiakerak egiaztatzeko, irizpide hauek ezarri dira:

- a. Bizkaiko Lurralde Historikoko banku-erakundeetako kontu korranteetan dauden funtsen enbargoak: konturik ez dagoela edo enbargatzeko gutxienez hiru saiakera egin direla, eraitza negatiboa izanik.
- b. Foru Ogasunak egindako zergen itzultzeak enbargatzeko: Foru Ogasunari enbargatzeko eskaera jakinarazitakoan, bertan zergadun bezala agertzen ez bada edo eskaeraren altatik gutxienez 2 urtera bitarteko denboraldian zenbatekorik atxiki ez bada.
- c. Soldaten, ordainsarien eta pentsioen enbargoak: GSDO eta GSIN erakundeei eskaera egin eta 3 hilabete igaro badira horiek erantzunik gabe, erantzuna negatiboa bada edo lan-zentroa Udalaren eskumen-eremutik kanpo kokatzen bada.
- d. Ondasun higiezin enbargoak: Ondasun higiezinik ez dagoela erakusten bada edo inskribatuta dauden kargak ondasunaren balorazioa gainditzen badute, edo Diruzaintzak proportzionaltasun printzipioa aplikatu behar duela uste badu zorraren eta enbargatu beharreko ondasunaren artean.
- e. Ibilgailuen enbargoak: TMIZren errolda fiskalean pertsona zorduna subjektu pasibo bezala agertzen ez bada edo ibilgailuak 10 urtetik gorako antzinatasuna badu. Bestela, eraitza negatiboa egiaztatu beharko da, eta negatibotzat hartuko da Ondasun Higigarrien Erregistroan aurretik dauden kargak ibilgailuaren balorazioa gainditzen badute.

6. Kobratzean huts eginen eta kreditu kobraezinen deklarazioa Bizkaiko Foru Aldundiak proposatuta egiten bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Getxoko Udalaren arteko Hitzarmenean oinarrituta, haren zuzenbide publikoko diru-sarrerak nahitaez biltzeko, foru-erakundeak izapidetutako espedienteen jasoko da behar bezala justifikatuta eta egiaztatuta bai zordunaren ondasun enbargagarriarik ez dagoela bai kaudimengabezia justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu dela, aplikatu beharreko araudian oinarrituta. Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio foru-erakundeari zordun jakin baten inguruan egindako jarduketari buruzko informazioa.

## F. BETEARAZPEN DENBORALDIA ETA PREMIAMENDUZKO PROZEDURA

### 43. Artikulua. Betearazpen-denboraldiaren hasiera

1. Borondatezko aldiaren ordaintzeko ezarritako epea amaitzen denean ordainketa oso-oso egin ez bada, ordaindu gabeko zorra ordaintzeko betearazpen-epea automatikoki hasiko da.

Betearazpen-epea hasteak betearazpen-epeko % 5eko erretegia ekarriko du.

Geroratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskaera borondatezko epean aurkezten bada, ezingo da betearazpen-epea hasi espediente horiek izapidetzen ari diren bitartean.

2. Borondatezko denboralditik kanpo ordaindutako zenbatekoak ordainketa bezala kontatuko dira zerga-zorren kontura, betearazpen-denboraldian, eta proportzionalki banatuko dira printzipalaren, erretegiaren eta atzerapen-interesaren artean; gainerako zatia, berriz, premiamendu-bidetik eskatuko da.

3. Aldizkako iraungipena eta jakinarazpen kolektiboa duten zorretan, neurrirako ordainketara egokitu direnetan, zati bat ez ordaintzearekin betearazpen-denboraldiari hasiera emango zaio ordaintzeko dagoen gainerako zorren zatia, ordaindu gabeko zatia zein ondorengoak sartuta.

4. Onartutako ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko erabakia betetzen ez bada, geroratze edo zatikatze hori eskatzeko unean borondatezko aldiaren zegoen zor osoaren betearazpen-aldia hasiko da. Zatikatzearen kasuan, ordaintzeke dagoen zorra ordaindu gabeko zatia zein ondorengoak barne hartuko lituzke.

#### **44. Artikulua. Premiamenduzko prozedura**

1. Udaleko Dirubilketak borondatezko epean ordainduak izan ez diren espedienteen aldiaren zerrendak egiten ditu. Zerrenda horiek kontuan hartuta, udal-diruzainak premiamenduzko probidentziak ematen ditu.

Premiamendu-probidentzietan ez dira hamabi eurotik beherako ordainagiriak sartuko, pertsona titular beraren zor metatua 50 eurotik gorakoa izan ezean.

2. Premiamendu-probidentzia legez jakinarazi behar zaio zordunari. Jakinarazpena eginez gero, zerga-zorra hilabeteko ezohiko epean ordaindu beharko da, jakinarazi den egunetik zenbatzen hasita.

### **IV. IKUSKATZEKO PROZEDURA**

#### **45. Artikulua. Zergen ikuskapena**



Zergen ikuskapena BLHko Zergen gaineko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta 99/2005 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo da; azken horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Ikuskapenari buruzko Erregelamendua onartzen da eta gainerako xedapen osagarriak.

## **V. PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA**

### **47. Artikulua. Printzipio orokorrak**

1. Udalak zerga-zorra zehazteko duen ahalmena indargabetu eta iraungi daiteke. Indargabetzea eta iraungitzea batera izan daiteke; alegia, bietakoren bat gertatzen bada, ezingo da burutu administrazioak duen ahalmena zerga-zorra zehazteko dagokion likidazioaren bitartez. Zorra zerga-aitorpena aurkezteko epea amaitu eta la urtera indargabetuko da.

2. Indargabetuta gera daitezke administrazioak likidatutako zorrak eta autolikidatuak eskatzeko duen ahalmena, ordaintzeko betebeharra dutenek zuzenbide publikoko sarrerak arautzen dituen arauditik eratorritako itzultzeak eskuratzeko duten eskubidea, bidegabeko sarreren itzultzeak eta bermeen kostuaren diru-itzultzeak. Preskripzioa lau urtera hasiko da, eta preskripzio-epea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritako arauen arabera hasiko da zenbatzen.

Trafiko eta aparkalekuaren gaineko zigorrak ordaintzea eskatzeko preskripzioa Bide Segurtasunari buruzko legedia sektorialean aurreikusitakoa izango da.

## **VI. ADMINISTRAZIO-BIDEAN BERRIKUSTEA**

### **47. Artikulua. Akatsak zuzentzea**

Ofizioz edo pertsona interesatuak eskatuta, zerga-administrazioak edozein unetan zuzendu ahal izango ditu akats materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak, betiere, preskripzio edo iraungipen epea igaro ez bada. Ebazpenaren bidez zenbatekoaren akatsa edo beste edozein ekintza edo ebazpenarena berarena zuzenduko da.

### **48. Artikulua. Baliogabetzea**

Zerga-administrazioak bere ekintzak baliogabetu ahal izango ditu pertsona interesatuen alderako, ordenamendu juridikoa argi eta garbi hausten dela ikusten bada, egoera juridiko partikular bat kaltetzen duten bat-bateko gertaerek argi eta garbi erakusten badute emandako ekintza bidegabea dela edo prozeduraren izapidean interesatuen defentsarik eza gertatu bada. Baliogabetzea beti ofizioz hasiko da.

Zergen Kudeaketarako Unitateak proposatuta, Alkatetza Dekretuaren bidez baliogabetuko dira aurrean aipatutako akatsak dituzten zerga-likidazioak edo prezio publikoenak eta aldizkako ordainagiriak.

Era berean, Diruzainak premiamenduzko probidentzia baliogabetu ahal izango du ZFAOn aurreikusitako baldintzen arabera, akatsak antzemateagatik.

#### **49. Artikulua. Berraztertze errekurtsoa**

1. Tokiko zergak eta zuzenbide publikoko gainerako sarrerak aplikatzearen eta horien eraginkortasunaren ekintzen kontra berraztertze errekurtsoa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza egitea, legezko ondorioekin, kuotak eta eskubide likidatuak, interesak, errekarquak eta zigorrak biltzea barne.

Aldeak eskatuta, aurkaratutako egintza etengo da kasu hauetan:

- a) Bermearekin: 5.000 €-tik gorako zorrak.
- b) Bermerik gabe: 5.000 €-tik beherako zorrak.

Bi kasuetan, atzerapen-interesak kobratuko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera.

2. Zerga-zehapenak ezartzeko egintzak automatikoki etenda geratuko dira errekurtsoa ezartzen bada.

3. Berraztertze errekurtsoa jarriko da hilabete bateko epean, berrikustea eskatzen den egintzaren berariazko jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita edo zergadunen edo ordainketa egitera behartutakoen erroldak edo matrikulak jendaurrean edukitzeko epea amaitzen denetik aurrera. Halaber, aldizkako epemugako eta jakinarazpen kolektiboko zorren kasuan, errekurtsoa jarri ahal izango da, baita ere, ordainketa egiteko borondatezko epean edo hura amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hilabete bateko epean.

Espedienteak edo eskaerak berariazko ebazpenik ez duen kasuetan, errekurtsoa jarriko da hilabete bateko epean, dagokion araudiaren arabera, administrazioaren isiltasunaren efektuak egin direla ulertzen denetik kontatzen hasita.

4. Berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren aurka ezin da berriro errekurtsorik jarri. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auziekiko Epaitegietan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita edo sei hilabeteko epean, administrazioaren isiltasunaren efektuak gertatzen direnetik zenbatuta.

#### **50. Artikulua. Premiamenduzko probidentziaren aurkako errekurtsoak**

Premiamenduzko probidentziaren aurka soilik arrazoi hauek medio egin ahal izango da:

- a) Zorra guztiz indargabetzea edo Administrazioak ordainketa eskatzen daukan ahalmena indargabetzea.
- b) Zorra geroratu, zatiitu edo konpentsatzea eskatzea borondatezko denboraldian eta zergabilketa geldiarazteko beste edozein kausa.
- c) Likidazioa jakinarazi ez izatea.
- d) Likidazioa baliogabetu izatea.
- e) Premiamenduzko burubidean pertsona zorduna edo zorra identifikatzea galarazten duen akatsa edo hutsa egotea.

Premiamenduzko probidentziaren aurkako errekurtsuak Udal diruzainari aurkeztzen zaizkio, eta hark ebatzi beharko ditu dagozkion txostenak kontuan hartuta. Errekurtsuaren ebazpena behar bezala jakinaraziko da.

Premiamenduzko probidentziaren aurka errekurtsua jarri eta ebazpena eman gabe hiru hilabete igarotzen badira, onartua ez dela izan uler daiteke, eta administrazioarekiko auziaren bidez irekita geratuko da.

Errekurtsuaren ebazpenaren bidez, premiamenduzko probientzia baliogabetuz gero eta bidegabe kobratutako errekareruak eta interesak itzultzera egokituz gero, itzultzea Alkatetza Dekretu bidez onartuko da.

### **51. Artikulua. Enbargo-diligentziaren aurkako errekurtsua**

Enbargo-diligentziaren aurka soilik arrazoi hauek onartuko dira:

- Zorra guztiz indargabetzea
- Premiamenduzko probidentzia jakinarazi ez izatea
- Foru Arauaren barruan enbargoa arautzen duten arauak ez betetzea
- Dirubilketa-prozedura etetea

Errekurtsua Udal-diruzainari aurkeztuko zaio, eta hark dagozkion txostenak kontuan hartuta ebatzi beharko du.

### **52. Artikulua. Prozedura ofizioz etetea**

Udalak ofizioz etengo du Kudeaketaren eta Dirubilletaren prozedura, akats materialak edo egitatezkoak ikusten badira likidazioan, aldizkako ordainagirian edo erroldan; horretarako, inprimaki normalizatua erabiliko da.

## **VII. ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

### **53. Artikulua. Zehatzeko ahala**

Zehapen-prozedura Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta 100/2005 FDn ezarritakoaren arabera garatuko da; azken horren bidez, BLHko Zergen Zehapen Erregelamendua eta gainerako xedapen osagarriak onartzen dira.

## VIII. XEDAPEN INDARGABETZAILEA

### **Bakarra. Aurreko Ordenantza Fiskal Orokorra indargabetzea**

Indargabetuta geratzen da Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskapenaren inguruan indarrean den Ordenantza Fiskal Orokorra, 2005eko azaroaren 25eko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onartutako azken aldaketara bitarte.

## IX. AZKEN XEDAPENA

### **Bakarra. Indarrean sartzea**

Ordenantzaren egungo testua, 2006ko irailaren 29an Udaleko Osoko Bilkurak onartua eta 2014ko azaroaren 25ean, 2022ko abenduaren 29an, 2024ko maiatzaren 30an, Osoko Bilkurak hatutako akordioaren bidez aldatua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarrean sartuko da argitaratu eta hurrengo egunean. Era berean, indarrean izango da aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.